

Mihigintza ehuntzen Basaurin. Euskarabila elkartearen gaineko azterketa

HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien IX. Edizioko
BIGARREN SARIA (2016)

Txerra Rodriguez

Hizkuntza aholkularia. EMUN

txerra.rodriquez@gmail.com

Sarrera-data 2016-09-30 / Onartze-data 2016-12-02

Laburpena. Mila aldiz goraiatu egin dugu euskararen biziberritzean aktibismoak (edo militantziak) izan duen eta duen papera. Hala ere, oso azterketa gutxi egin dira aktibismo horri buruz. Are gutxiago, aktibismo horretan parte hartzen dutenei, inoiz parte hartu dutenei eta parte hartu ez dutenei galdetuta. Lan honek Basauriko Euskarabila euskara elkartearen inguruan garatutako aktibismoa eta diskurtsoak aztertu nahi izan ditu, hainbat gairi oratuta (komunitategintza, administrazioarekin izandako harremanak, elkartearen barne-bizitza, elkartearen irudia...). Eta, gainera, diskurtsoak aztertzeaz gain, aurrera begirako proposamen, praktika eta jardun batzuk ere proposatu egin ditut. Basaurira egokitutako azterketa izan den arren, nire ustez, hainbat ondorio eta proposamen, egokitzapenak egokitzapen, haren tankera beste euskara elkarte batzuentzako ere baliagarriak edo, gutxienez, inspiratzeko moduak izan daitezke. • *Hitz gakoak:* Parte hartzea, Basauri, Euskarabila, aktibismoa, diskurtsoak.

Abstract. We have on numerous occasions lauded the role that activism (or militancy) has played and continues to play in the revival of Basque. Nevertheless, very few studies have dealt with this activism. And even fewer involving asking those participating in this activism, those who have at some point participated in it, and those who have not participated in it. This piece of work set out to examine the activism and discourses developed around the Euskarabila Basque-language association of Basauri (Bizkaia), by tackling a range of issues (community building, relations with the administration, internal life of the association, image of the association, etc.). And in addition to examining the discourses, I have also put forward some proposals, practices and activities with the future in mind. Despite being a study adapted to Basauri, I believe that a number of conclusions and proposals, adaptations notwithstanding, could also be valid for similar Basque-language associations or could provide inspiration for them. • *Key words:* Participation, Basauri, Euskarabila, activism, discourses.

1. SARRERA¹

I Basauriko Euskarabila elkarteari buruzko kasu azterketa duzu, irakurle, hurrengo orrietan. Basaurin ainguratutako elkarte hau hizkuntzaren aldeko toki mailako elkarte autonomoa da. Hau da, basauriar euskaldun batzuek sortutako elkarte, erabat autonomo, (nahiz eta gerora beste hainbat elkarterekin batera federatzeko erabakia hartu) euskararen aldeko lanak egin eta eragiteko.

Hizkuntzaren aldeko toki mailako elkarte autonomoen fenomeno ez da oso ohikoa gure mugetatik kanpo. Europako hizkuntza gutxituen kasuan behinik behin ez da fenomeno honen parekorik edo antzekorik ez Galizian, ez Bretainian, ez Flandrian, ez Galesen, ez Okzitanian, ezta Katalunian ere (gurean duen indarrarekin behinik behin). Europa mailan, jakina, badira toki mailako elkarteak. Baina toki mailako elkarte horiek izan ohi dira egitura handiagokoen tokiko adarrak. Gure kasuan, ostera, toki mailan sustraitutako elkarteak dira hauek, toki mailan sortu eta toki mailan hartzen dira erabakiak.

Horrez gain, gai honen inguruan nahiko gutxi ikertu eta idatzi da gurean. 90. hamarkadaren hasieran, Jazten aldizkari soziolinguistikoak elkarte hauen inguruan dokumentazio eta teorizazio emankorrak plazaratu zituen. Bat aldizkariak ere lantzean behin leku egin zien elkarte hauei hamarkada horretan. Baina milurteko berrian literatura zientifikoak nahiko arreta gutxi eskaini die elkarte hauei.

Esate baterako, Hiznet graduondokoaren ikerketa biltegian hiru baino ez dira elkarte hauen inguruan ondutako sakontze egitasmoak: Imanol Minerrek Errenteriako Lau Haizetara elkartearen ingurukoa (Miner, 2002), Ainara Ibañezek Iruñeko Karrikiri elkartearen ingurukoa (Ibañez, 2006) eta Maialen Arnedok Atxutxiamaika aisialdi taldeari buruzkoa (Arnedo, 2014). Horrez gain, badira beste artikulua zientifiko batzuk: Imanol Larrañagak Elgoibarko Izarra elkarteari buruz egindako atzera begirakoa (Larrañaga, 2013) edo nik neuk Derioko Tximintx euskara elkarteari buruz idatzitako artikulua (Rodríguez, 2013).

Hala ere, nik uste dut gure biziberritze prozesuaren hanka nagusietako bat osatzen dutela elkarte hauek eta, hortaz, merezi duela arlo akademikoan ere elkarte hauen jarduna aztertzeari beta eta lekua ematea.

Ez hori bakarrik: milurteko berriko ikerketa hauek guztiek badute ezauzgarri komun bat: elkarte horietako kide batek egindako ikerketak izatea. Hau da, kasu guztietan ikertzaileak sortu du jakintza elkartearen beraren

Hizkuntzaren aldeko toki mailako elkarte autonomoen fenomeno ez da oso ohikoa gure mugetatik kanpo. Europako hizkuntza gutxituen kasuan behinik behin ez da fenomeno honen parekorik edo antzekorik ez Galizian, ez Bretainian, ez Flandrian, ez Galesen, ez Okzitanian, ezta Katalunian ere (gurean duen indarrarekin behinik behin).

**Euskara
elkarteek euren
burua
mugimendu
sozial bezala
irudikatu dute.**

erraietatik, nolabait esateko. Nire ustez, jakintza kokatu hau eraginkorra da, baina batzuetan beharrezkoa da distantzia apur bat hartzea ikertuko diren prozesu sozialetatik, batzuetan beharrezkoa da prozesu sozial horiek barrutik bizi ez duen bat izatea ikerketa bideratuko duena.

Ni ere elkarte hauetako baten partaidea naiz, Derioko Tximintx euskara elkarteko kidea hain zuzen ere. Horrek hein batean bultzatu ninduen tankera bertuko (diferentzia nabarmenak dauden arren) elkarte bat hartzera ikerketa-gai bezala. Eta horrek, seguruenik, markatu du gaiari hurbiltzeko erabili dudan begirada. Ez baita gauza bera ikertutakoak barruak eta buruko geruzak mugiaraztea.

Gainera, kasu azterketa zehatz bat izan arren eta alde zehatzetik jakin barik zeintzuk izango ziren ikerketaren beraren bideak, pentsatzen nuen (eta pentsatzen dut) atera diren hainbat arazo, ondorio eta aterabide tankera bereko hainbat elkarterentzat baliogarriak izan daitezkeela, egokitzen egokitzen.

2. TEORIAREN BIDEAK IREKITZEN: EKINTZA KOLEKTIBOTIK EUSKARABILARA

I

2.1 Ekintza kolektiboa

Euskarabilak ekintza kolektiboa praktikatzen du. Izan ere, Jesus Casquette-ren arabera, "talde sozial baten edo batzuen eguneroko esfortzuak helburu partekatatu batzuen bila" (Casquette, 2001: 9-10) da ekintza kolektiboa. Izan ere, ekintza kolektiboa agertzen da ingurune orokorrean aldaketak gertatzen direnean eta norbanakoak eragin handiko beste norbanako batzuekin elkartzean. Hortaz, norbanako hauek indarrak metatu egiten dituzte, eliteen, agintarien edo euren antagonista sozialen aurka jotzeko. Horretarako, ekintza kolektibo horretan parte hartzeko hiru antolakuntza forma nagusi eratu dira mendebaldeko jendarteetan: alderdi politikoak, mugimendu sozialak² eta interes taldeak.

Hiru horien artean, euskara elkarteek³ (eta, beraz, Euskarabila elkarteak ere) euren burua mugimendu sozial bezala irudikatu dute (Topagunea, 2011: 16). Eta zer da, bada, mugimendu soziala? Literatura zientifikoan ehunka definizio daude mugimendu sozialen inguruan. Ezinbestean horietako batzuei egin behar diet erreferentzia. Esate baterako, Mario Dianik mugimendu sozialak horrela definitzen ditu: "norbanako, talde edo erakunde multzo baten arteko elkarrekintza informalean sarea, nor-tasun kolektibo partekatua oinarri gatazka politiko edo kultural batean engeaiatu egiten dena" (Diani, 1992: 2-4). Jesús Casquette-k, bestetik, ho-

nela definitzen ditu mugimendu sozialak: “norbanako, talde eta erakundearen arteko sare interaktiboa. Sare horrek aldaketa sozialaren prozesuan parte hartzen du jarraitutasunez gizarte zibilaren eta agintarien aurrean euren eskariak plazaratuz eta parte-hartzen du forma ez-konbentzionalak erabiliz” (Casquette, 1998: 22). Joaquim Raschke-k, azkenik, honela definitzen ditu mugimenduak: “jendartean oinarrizko aldaketa bat eragin, eragotzi edo ezabatu nahi duen eragile kolektiboa da. Mugimenduak integrazio sinboliko handia eta rolen zehaztasun maila txikia izan ohi du eta ekintza eta mobilizazio-modu aldakorrek erabili egiten ditu egunerokoan” (Raschke, 1994: 3-4).

Jesús Casquettek emandako definizioari tiraka, interesgarri iruditu zaizkit berak egindako zehaztapen batzuk (Casquette, 1998: 22-27):

- “Mugimendu sozialak norbanako, talde eta erakundearen sare mobilizatuak dira”. Era berean, “nortasun kolektiboa oso garatuta dute” eta bilatzen dituzten helburuek “jendarte osoarentzat eragina izango dute”.
- “Mugimendu sozialek bitariko estrategia bati jarraitzen diote”. Alde batetik, euren arazoei irtenbideak eskatzen dizkiete agintariei, baina, beste alde batetik, “arazo bihurtzen dute jendartean presente dauden eredu kulturalak, arauak, nortasunak eta erakundeak”. Batzuek estrategia bati besteari baino garrantzi gehiago ematen badiote ere, esan daiteke guztiek biei ekiten dietela noiz edo noiz.
- Beste eragile kolektiboek (alderdi zein interes taldeek) baino egitura informalagoa, horizontalagoa izan ohi dute.
- Ekintzen erreperitorioa zabalduta egiten dute. Alderdiek eta interes taldeek erabiltzen dituzten parte-hartze moduez gain, bestelako parte-hartze modu batzuk praktikatzan dituzte (legezkoak izan ala ez).
- Mugimendu sozialak aldaketa sozialean esku-hartzeko saioak dira.

Mugimendu sozialaz berba egin ahal izateko, “beharrezkoa da nolabaiteko jarraitutasuna egotea. Ezinezkoa da kasu guztietarako balioko duen kronologia mugari bat ezartzea, baina baliozko erreferentzia tenporala izan daiteke urte batzuetakoa”.

Mugimendu sozialak ez dira homogeneoak. Haien barruan, joera eta erakunde askok hartzen dute parte eta sarritan euren artean aurka egiten dute, ideologian, estrategian edo beste hainbat puntutan.

Euskara elkarteek, beraz, euren burua mugimendu sozial gisa ikusten dute eta, esan bezala, zientzia sozialetako literaturak hiru eragile nagusi bereizten ditu: alderdi politikoak, mugimendu sozialak eta interes

“Mugimendu sozialak norbanako, talde eta erakundearen sare mobilizatuak dira”. Era berean, “nortasun kolektiboa oso garatuta dute” eta bilatzen dituzten helburuek “jendarte osoarentzat eragina izango dute”.

Mugimendu sozialak ez dira homogeenak. Haien barruan, joera eta erakunde askok hartzen dute parte eta sarritan euren artean aurka egiten dute, ideologian, estrategian edo beste hainbat puntutan.

taldeak. Hala ere, praktikan interes talde eta mugimendu sozialen arteko mugak zehatz-mehatz zedarritzea zaila izan da. Hala ere, ezberdintasun nagusizat hau hartu ohi da: “mugimendu sozialak eragile ez-konbentzionalak dira (erakundeen parametroetatik kanpo daude haien eskaerak zein agenda) eta beste biak, ordea, eragile konbentzionalak dira (erakundeen parametroen barruan jarduten dute)” (Ibarra, de la Peña 2004: 21).

Interes taldeek, gainera, antolakuntza sendoa izan ohi dute, eta antolakuntza hori ideologiaren zehaztasunetik gaineratik dator, eta erakundeekin batera egiten dute lan. Pedro Ibarra eta Alberto de la Peñak (Ibarra, P., de la Peña, A. 2004) interes taldeen lau ezaugarri hauek nabarmentzen dituzte:

- “Interes taldeek ez dute *etsai* bat aurkitzen, ez da boterea *etsai* bakarra, askoz lausoagoa da”.
- “Interes taldeetan ekintza kolektiboa ukitzeko modukoa da”.
- “Taldea hauek aukeratzen dute lehentasunez erakundeekin jarduteko era konbentzionala, kalea erabat baztertu ez arren”. “Eta erakundeekin elkarlanean jarduteko estrategiak landuko dituzte (esate baterako, diru-laguntzak eskatuz). Horrek, alabaina, ez du esan nahi erakundeen papera akritikoki onartzen dutenik. Ematen du, gainera, garatzen ari dela nolabaiteko osagarritasuna interes taldeen eta erakundeen artean”.
- “Gero eta gehiago erregistratzen dira interes publikoko taldeak elkarte modura eta, beraz, aginte-organoak-eta izan badituzte. Eta langileak badituzte, batez ere, izapide administratiboak bete ahal izateko”.

Hortaz, eta definizioak definizio, euskara elkarteak mugimendu sozial ala interes talde dira? Nire ustez, eta bakoitzak bere buruari ematen dizkion definizioak gorabehera, euskara elkarteak hurbilago daude interes talde bat izatetik mugimendu sozial bat izatetik baino. Hala ere, interes taldeen aldean, euskara elkarteetan oraindik militantzia, lan boluntarioa, aktibismoa dago⁴ (Topagunea, 2016: 16). Beraz, nik uste dut bi kontzeptu horien artean egin daitekeen lerro *continuum* horretan kokatu beharko liritekeela euskara elkarteak. Hala ere, eta kontuan hartuta nork bere buruari emandako definizioek errealitatea sorgindu eta sortzeko duten ahalmena, euskara elkarteetan kasua (eta, bereziki, Basauriko Euskarabila elkartearen kasua) mugimendu sozial baten gisara aztertu nahi dut, jakin arren mugimendu sozial “puru” bat ez den. Eta, jakinda, interes taldeen ezaugarri asko partekatzen dituztela euskara elkarteek eta, zehatz, Basauriko Euskarabila elkarteak.

2.2 Euskalgintza

Euskara elkarteak 90eko hamarkadatik⁵ aurrera⁶ gurean sortu diren elkarte batzuk dira. Euskara elkarteak, beraz, “euskaldunek sortutako elkarteak da. Euskaltzaletasuna eta euskararen erabilera soziala bultzatzea xede nagusi izanik, tokian tokiko euskaldunak ahalduntzeko guneak dira: erabaki guneak, botere guneak, saretze guneak, sortze guneak, eragin guneak..., euskara garatzeko tresnak dira, iraunkorrak. Euskaraz bizi dira, euskararen egoera dute aztergai, euskarak batzen ditu kideak” (Topagunea, 2016: 11).

Izan ere, euskara elkarteen helburu nagusia “euskal komunitatea egituratzea eta artikulatzea” (Topagunea, 2011: 9) da, hau da, “hizkuntza ahulari belaunez belauneko iraupen-bidea bermatzea eta hiztun-elkarteari bere neurriko esparru berriak zabaltzea” (Zalbide, 2003). Azken finean, euskara elkarteen helburua “hiztunen kopuru erlatiboa handitzea eta, batez ere, erabilera-eremuak zabaltzea” (Urla, 2012: 8) da. Hortaz, “aldaketa soziala eragin nahi dute” (Cooper, 1997: 194). Eta, horretarako, batez ere hasierako urteetan ezinbestekoa izan zen Jose Maria Sanchez Carrion “Txepetx” egileak ondutako teorizazio lana⁷ (Sanchez Carrion, 1991).

Hortaz, euskara elkarteak, hizkuntzaren soziologiak kanonikoki ezarritako bi plangintzen artean (Haugen, 1966), estatusaren plangintzan kokatzen du bere burua (beste plangintza mota, corpusaren plangintza bere lan eremuetatik kanpo dago hein handi batean). Hala ere, Haugenek ezarritako estatusaren plangintza hori urteekin ñabartu da eta beste bi plangintza mota sartu dira bere esparruan: batetik, hizkuntza irakas-teko plangintza (Cooper, 1997: 45) eta, bestetik, komunitategintza⁸.

Hortaz, euskara elkarteak hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialaren barruko erakundeak direla argi geratu da. Joshua Fishman-ek hauei “voluntary language organizations” deitzen die (Fishman, J., 1974). Hala ere, aitortu behar da ez dagoela mundu mailako literatura zientifikoan mugimendu sozial hauen inguruko ale askorik. Saiakera gutxi batzuk egon dira mugimendu honi zuztar zientifiko sakonak emateko asmoarekin. Nik Isidor Marí (Marí, 1993) soziolinguista katalanaren ezaugarritzea aurkitzen dut bereziki probetxugarri lan honen helburuetarako. Haren arabera, “hainbat ekintza sozial kolektibo sar daitezke hizkuntzaren aldeko mugimendu honen definizioaren barruan, zentzu hertsian zein zaballean ulertuz gero”. Horretarako, berak sei elementuri begiratzen die:

- Lehenik, mugimendu horiek zer eraldaketa soziolinguistikoko lortu nahi duten aztertzen du. Izan ere, “zentzu zabal batean hizkuntzaren erabilera aktibatu nahi duen edozein mugimendu har dezakegu

***Euskara
elkarteak,
hizkuntzaren
soziologiak
kanonikoki
ezarritako bi
plangintzen
artean (Haugen,
1966),
estatusaren
plangintzan
kokatzen du bere
burua (beste
plangintza mota,
corpusaren
plangintza bere
lan eremuetatik
kanpo dago hein
handi batean).***

**Gurean,
hizkuntzaren
aldeko
mugimendu
soziala, sarritan,
euskalgintzaren
kontzeptuaren
aterkipean
aztertu egin da.
Eta, behin baino
gehiagotan,
euskalgintza
hizkuntzaren
aldeko
mugimendu
sozialaren
sinonimotzat
hartua izan da.**

mugimendu sozial modura (nahiz eta hizkuntzaren estatusa zalan-tzan jarri ez)". Hala ere, zentzu hertsian, "mugimenduak bakarrik lirateke sistema soziolinguistikoa eraldaketa nabarmenak bilatzen dituztenak (estatusen eragin nahi dutenak, alegia)".

- Bigarrenik, Isidor-ek mugimenduek lortzen duten irismena edo parte-hartze graduari begiratzen dio. Hortaz, "zentzu zabalean, presentzia publikoa duten talde guztiek har ditzakegu kontuan. Hala ere, zentzu hertsian, masa mugimenduak baino ez lirateke hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialak, parte-hartze sozial altukoak eta lurralde mailako eragin nabarmena dutenak".

- Hirugarrenik, iraunkortasuna edo egonkortasunari begira, "zentzu zabalean ekintza koiuntural asko har genitzake hizkuntzaren aldeko mugimendu sozial modura, baina, zentzu hertsian, urte batzuetan ekimen iraunkorra eta jarraia duten erakundeak baino ez lirateke hartu behar".

- Laugarrenik, mugimendu hauek hizkuntzarekin duten harremanari dagokionez, "zentzu zabalean hizkuntzaren biziberritzean zuzeneko edo zeharkako eragina duten talde guztiak hartu beharko genituzke aintzat. Zentzu hertsian, ostera, bakarrik hartu behar ditugu kontuan hizkuntzaren berreskuratzea helburu nagusi (edo bakarra) duten talde edo erakundeak".

- Bosgarrenik, "zentzu zabalean XIX. mendetik edo, are aurretik ere, hizkuntzarekin harremana izan duten mugimendu kultural, politiko zein ideologikoak hartu genitzake kontuan. Baina, zentzu hertsian, 60ko hamarkadatik aurrera, mugimendu sozial *berri*⁹ modura izendatuak izan diren horiek baino ez lirateke izango hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialak".

- Eta, seigarrenik, sistema politikoarekin duten harremanari begiratzen dio egileak. "Zentzu zabalean, ekintza kolektiboko tresna guztiak har ditzakegu kontuan (alderdi politikoek edo interes publikoko taldeek bultzatu eta sustatutakoak barne). Zentzu hertsian, ordea, sistema politikoarekin zerikusia ez duten mugimenduak baino ez lirateke hartu behar kontuan. Hau da, alderdi politikoekiko autonomia duten mugimenduak".

Zentzu zabal eta hertsian artean continuum bat dagoela argia da. Eta, nire ustez, kasu honen azterketan zentzu hertsian oratuko diot, nahiz eta puntu batzuetan zentzu zabaleko mugimenduen ezaugarriak izan daitezkeen aplikagarriak.

Gurean, hizkuntzaren aldeko mugimendu soziala, sarritan, euskalgintzaren kontzeptuaren aterkipean aztertu egin da. Eta, behin baino gehia-

gotan, euskalgintza hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialaren sinonimotzat hartua izan da. Euskalgintza gurean asko erabili arren, inork gutxi hartu du termino hori zedarrizteko lanik. Mikel Zalbidek hartu du bere bizkar lan hori eta bi motatako euskalgintzak bereizi egiten ditu. Alde batetik, berariazko euskalgintza legoke, orain arte euskalgintza moduan ulertua izan dena (agian, Isidor Maríren arabera, euskalgintza zentzu hertsian esan beharko nuke). Honela definitzen du berak berariazko euskalgintza: “soziokulturalki autorregulatzeko eta belaunez belaun transmititzeko indar faltaz euskal etnokultura (hizkuntza bera) gainbehera datorrela ikusirik, erabat galtzeko arriskua uste izanik eta halakorik nahi ez delarik, etnokultura horri bizirik eusteko giza artean deliberatuki egindako saio multzoa. Hots, euskal kulturaren on beharrez hainbat eragilek, perspektiba soziokulturaletik eta elkarlanean, eraturako ekimen sortari deitzen zaio euskalgintza” (Zalbide, 2007: 879-880).

Zalbideren definizioak ez du berbarik egiten mugimendu sozialei buruz: hori baino zabalagoa da bere berbetan euskalgintza (“ekimen sorta” gisa edo “giza artean deliberatuki egindako saio multzo” gisa azaltzen du berak). Patxi Juaristik ere (Juaristi, 2015: 80) euskalgintza “euskal identitatearen alde modu antolatuan” egiten den lan bezala hartzen du. Izan ere, jakina da mugimendu sozialak euskalgintzaren barruan daudela, baina, horiez gain, bestelako ekimen batzuek ere euskalgintzatzat dute euren burua: komunikabide batzuek, aholkularitza-enpresa batzuek, hezkuntza-zentro zenbaitek eta abarrek¹⁰. Hala ere, Joxe Jabier Iñigok honako hauek baino ez ditu sartzen euskalgintzaren barruan: “instituzioen eraginez sortu ez diren erakundeak” (Iñigo, 1992: 113). Patxi Baztarrikak, aitzitik, euskalgintzaren barruan ere honako hauek sartzen ditu: “erakunde publikoek euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lanak” (Baztarrika, 2009: 229¹¹).

Euskalgintza terminoa, beraz, nahasgarri samarra izan daitekeenez, erabaki dut lan honen helburuetarako berba hau ez hartzea hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialaren sinonimotzat. Gainera, euskalgintza oso gutxi landu den kontzeptua da eta mugimendu sozialaren kontzeptuak, ostera, tradizio handia du gurean zein nazioartean. Hala ere, uste dut euskalgintza eta hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialen arteko zedarrizte teoriko zein praktikoa egiteko dagoela, nahiz eta jardun hori lan honen mugak zeharo gainditzen dituen. Etorriko dira nire atzetik lan hori ganoraz eta tentuz egingo dutenak.

**Euskalgintza
terminoa
nahasgarri
samarra izan
daitekeenez,
erabaki dut lan
honen
helburuetarako
berba hau ez
hartzea
hizkuntzaren
aldeko
mugimendu
sozialaren
sinonimotzat.**

2.3 Euskarabila elkarte

Euskarabila elkarte 1996an sortu zen, orain dela 20 urte. Lehenagotik Basauri Berreuskalduntzeko Taldea (BBT) bazegoen. 1995ean soziolinguistikari buruzko jardunaldi batzuk antolatu zituen, euren burua janzten hasi eta Euskarabila elkarte sortu zuten beste herri batzuetako esperientzietan oinarrituta.

Euskarabilak bere jardunbidean bi epe nagusi izan ditu: 1996-2012, eta 2012-gaur egun arte. Lehen epealdian Euskarabilak, batez ere, helduentzako kultur jarduerak (esate baterako, ipuin erotikoen lehiaketa, idazleekin solasean, musika kontzertuak, sukaldaritzako ikastaroak...) eta ume eta gazteentzako aisialdiari lotutako jarduerak (hiri udalekuak, begirale ikastaroak, antzerki topaketak...) antolatu zituen.

Bigarren epealdiko mugarri nagusia izan zen 2012. urtean abiatutako hausnarketa prozesua (Euskarabila, 2012). Hausnarketa prozesu hori Topaguneak dinamizatu zuen. Horren ondorioz, Euskarabilak ontziaren branka mugiarazi zuen apur bat eta beste begirada batekin hasi zen lanean (nahiz eta aurretik egiten zituenak egiten jarraitu). Eta, batez ere, Basaurin Be Bagara (aurrerantzean BBB) ekimena jarri zuten martxan.

2012tik urtero Basaurin egiten den egun osoko jaieguna da BBB. Hiru ezaugarri nagusi ditu: euskaltzalea da, anitza da eta bizipoz sortzaile izan nahi du. Lehen edizioa 2012an izan zen. Urte horretan Basaurin 12 orduz hainbat norbanakok eta elkartek parte hartu zuten jaialdian. Maratoia egin zuten eta 12 orduz jarraian ekitaldiak antolatu zituzten. Ordutik formatua aldatu bada ere, mugarria ezarri du BBBk.

3. METODOLOGIA

I Gaiari hurbiltzeko, beraz, metodologia eta betaurrekoak aukeratu behar nituen. Gaia kualitatiboa denez, metodo kuantitatiboak zein parte hartzaileak baztertu nituen. Eta kualitatiboen artean, Delphi metodoa hautatu nuen.

Abantaila batzuk baditu Delphi teknikak beste teknika kualitatibo batzuekin alderatuta (Ruiz Olabuenaga, Ispizua, 1989: 174). Batetik, denbora gutxi duten pertsonengandik informazioa lortzeko bide erraza da. Bestetik, landa-lana beste teknika kualitatibo batzuetan baino errazago prestatzen da. Horrela, dirua eta denbora aurrezteko modua dakar. Hirugarrenik, ikertzaileak eragin dezakeen “zarata” ere murriztu egiten da. Izan ere, beste teknika batzuetan ez bezala, ikertzailearen papera

nahiko txikia da eta horrek erantzunen kalitatean ere eragin dezake. Laugarrenik, teknika honek anonimatu handia eskaintzen du eta horrek gai korapilatsu samarretan (ikerketaren gaietako batzuk horrelakoak izan zitezkeela aurreikusi egin nuen) erantzun gardenagoak eta zuzenagoak eman ditzake. Eta bosgarrenik eta azkenik, parte hartzaileek beste teknika batzuetan baino denbora gehiago dute erantzunak presartzeko eta, hortaz, parte hartzaileen erantzunek freskotasuna galdu arren, sakontasun eta sendotasun gehiago ematen dute.

Delphi teknikaren bidez, gainera, posible da adituen arteko adostasunei ere leku egitea. Alde batetik, ados egon daitezkeen puntuak ondorioztatzea posible da eta, beste alde batetik, adostasunik ez izan arren, arazo nagusiak identifikatzea posible da. Hau da, ados egon ez arren, adituak bat etor daitezke arazoaren dimentsio nagusienak zeintzuk diren.

Hau guztia aintzat hartuta, hautu metodologiko egokiena Delphi dela ondorioztatu nuen. Behin teknika aukeratuta, askatu beharreko bigarren korapiloa izan da teknika horrekin norengana jo informazio eske.

Horretarako, Marco Marchionik (Marchioni, 2009: 8-9) proposatutako hiru zirkuluen teoria hartu dut aintzat. Teoria horren arabera, edozein prozesu parte hartzaileetan hiru motatako eragilek hartzen du parte:

- Ekimenarekin bat egiten duten pertsonak eta erabat babestuko dutenak. Hauek ekimenaren (gure kasuan, elkartearen) nukleo bihurtuko dira, hau da, lehen zirkuluko parte.
- Ekimenarekin bat egiten duten pertsonak baina bakarrik hartuko dutenak parte puntualki, partzialki, behin-behinean... Pertsona hauek guztiek osatuko dute bigarren zirkulua, hau da, laguntza partzialen zirkulua.
- Parte hartu nahi ez dutenek edo ezin dutenek (arrazoiak arrazoi) osatzen dute hirugarren zirkulua.

Beraz, Euskarabila elkartearen jarduna eta irudia aztertzeko, hiru zirkulu hauetako hainbat kiderengana jo dut. Guztira, 33 pertsonengana jo dut: lehen zirkuluko 11 pertsonengana jo dut (6 andre eta 5 gizon), bigarren zirkuluko 12 lagunengana (7 andre eta 5 gizon) eta hirugarren zirkuluko 10engana (6 andre eta 4 gizon). Hortaz, 19 andre hartu du parte (%57,6) eta 14 gizonezko (%42,4) galdeketetan. Lehen galdetegia 2016ko martxoaren 5ean bidali nien parte hartzaileei eta hirugarrena (eta azkena) 2016ko maiatzaren 10ean.

Guztira, 33 pertsonengana jo dut: lehen zirkuluko 11 pertsonengana jo dut (6 andre eta 5 gizon), bigarren zirkuluko 12 lagunengana (7 andre eta 5 gizon) eta hirugarren zirkuluko 10engana (6 andre eta 4 gizon). Hortaz, 19 andre hartu du parte (%57,6) eta 14 gizonezko (%42,4) galdeketetan.

**Basaurin
Euskarabila
euskara
elkarteari buruz
gaur egun
dauden
diskurtsoak
aztertzea
aukeratu nuen,
elkartea bera eta
bere jarduna
zelan indartu
daitekeen
proposatu ahal
izateko.**

4. GAIA ETA HIPOTESIAK

I Lan honi ekiteko, hala ere, beharrezkoa zen gai bat aukeratzea, beharrezkoa zen Euskarabila elkartearen osotasunetik ezinbestean faktore batzuei kasu egitea. Eta, hortaz, aukeratzeak aukeratze, Basaurin Euskarabila euskara elkarteari buruz gaur egun dauden diskurtsoak aztertzea aukeratu nuen, elkartea bera eta bere jarduna zelan indartu daitekeen proposatu ahal izateko.

Hori dela eta, lanari gasolina eta zentzua emango zizkieten hipotesiak formulatzeari ekin nion. Honako sei baieztapen hauek hipotesiratu nituen:

- Euskarabila elkarteak antolatutako *Basaurin Be Bagara* ekimenak erreferentzialtasuna lortu du, baina horrek ez du jendea erakarri elkartearen egunerokotasunera (ekimenaren helburuetako bat zena, bide batez).
- Elkartearen erdigunea osatzen duten kideek ez dute erakusten Basaurin Euskarabila elkarteak berak duen aniztasuna (genero aldetik, adin aldetik eta, batez ere, ideologia aldetik).
- Euskarabila elkartearen eta Basauriko udalaren arteko harremanak ez du laguntzen Basauriko euskaltzale batzuk elkartearen inguruan aktibo bihurtzen.
- Euskarabila elkarteak ez ditu kontziente landu edozein mugimendu sozial edo talde baldintzatzen duten hiru faktore nagusienak: norbera, taldea (elkartea osatzen duten bazkideak, batez ere) eta proiektua (Joxemi Zumalabe Fundazioa, 2014).
- Euskarabilak ez du behar beste jendarteratu Basaurin euskararen erabilerak aurrera egin dezan beharrezkoa dela hiztun ahaldunduen lana eta elkartea bera dela horiek aktibatzeke katalizatzaile nagusienetakoa.
- 2012an Euskarabilak egindako gogoeta-prozesuak balio izan du elkarteari buelta bat emateko, baina oraindik sakondu beharko litzateke prozesu horretan zirriboratu eta iradokitako ildoetan.

5. EUSKARABILA ELKARTEA: KASU AZTERKETA

I Euskarabila elkartearen inguruan dabiltzan hainbat lagunen berbekin mosaikoa osatu dut hurrengo orrietan. Ahots askoko mapa da hauxe, lau koordinatu nagusien inguruan ardaztua: Euskarabilaren irudia Basaurin, komunitategintza, Euskarabila eta Basauriko udalaren arteko harremanak eta, azkenik, elkartearen beraren barne-bizitzari dagozkionak.

5.1 Euskarabilaren irudia Basaurin

Mosaiko honetan parte hartu duten gehienek Euskarabila elkarte euskarazko elkarte moduan definitzen dute, hau da, euskarazko funtzioak Basaurin (berr)eskuratu nahi dituen elkarte bezala, hain zuzen ere:

“Ideologia politiko desberdinak dituzten euskaldunak biltzen duen elkarte” (1²).

“Euskaraz bizi ahal izateko bidelaguna” (24).

“Basauriko euskal komunitatea batu eta hedatu du Basaurin” (28).

Irudiari dagokionez, alde batetik, ospea lortu duela esaten dute parte hartzaile gehienek, eta sinesgarritasuna lortu duela 20 urteren ondoren:

“Euskarabilaren irudia Basaurin, orokorrean, ona da, ospe handikoa eta sinesgarritasun adierazte duena” (8).

“Ordezkaritza bat eskuratu-onartu-irabazi dugu herrian. Euskalgintzan dihardutenen bozkat gaituzte bai euskaldunon artean bai udal agintarien artean bai orokorrean basauriarron artean ere” (2).

Eta, beste alde batetik, sakabanatuta bizi diren euskaldunen topaleku bezala definitu dute gehienek. Esate baterako, “euskaldunon erreferentzia badela ez dago dudarik” (16) edo “sakabanatuta bizi diren euskaldunen topalekua” (6).

Hala ere, Euskarabila euskaldun batzuen elkarte baina ez dela ere aipatu izan da:

“Euskarabila Basauriko euskaldun batzuen elkarte da” (31).

Eta, horri lotuta, kideetako askok aitortzen dute elkarte anitza izateko bokazioa izan duen arren (“elkarte beti izan da oso anitza”) (8), kanpotik Euskarabila pertsona gutxi batzuekin identifikatzen dela. Eta, are gehiago, askok hautu politiko jakin batekin identifikatzen dute Euskarabila: ezker abertzalearekin hain zuzen ere. Kasurako, “jendeak batez ere ezker abertzalearekin lotzen du gaur egunean, batez ere, lanean diharduen jendea ideologia horretatik gertu dagoelako” (6).

Parte hartzaileetako batzuek, ostera, ezker abertzalearekin lotzen duen “irudi markatua” sektore batzuetatik datorkiola uste dute: “herritar gehienok despolitizatu dugu euskara” (7). “Ezker abertzalearekin lotzen gaituzte, batez be udalak lotzen gaitu” (8).

“Ordezkaritza bat eskuratu-onartu-irabazi dugu herrian. Euskalgintzan dihardutenen bozkat gaituzte bai euskaldunon artean bai udal agintarien artean bai orokorrean basauriarron artean ere”.

Hala ere, inork ez du zalantzan jarri Euskarabilaren jarduna alderdikeriatik kanpo dagoela: “Oso argi dago(elako) egiten diren ekintzak kutsu politiko nabarmena ez dutenik” (31).

Hobetzekoak ere aipatu izan dituzte ikerketan parte hartu dutenek. Alde batetik, badirudi aniztasuna islatze aldera “beste alderdiekin identifikatuta dauden pertsonak egon beharko litzatekeela egunerokotasunean” (8). Era berean, “zubiak eraiki egin behar dira eta maila politikoa dauden mesfidantzak gainditu” (16).

Baina, beste alde batetik, parte hartzaileetako askok aipatu dute Euskarabilak bere irudia zaintzeko “egin dezakeen bakarra dela lana ahalik eta ondoen egitea, alderdikerien jokoan erori gabe” (24). Hau da, lana egitea “irudimenez, ilusioz, seduzitzeko asmoz, proposamen berritzaileak egiten” (19). Izan ere, kide hauen iritziz, ematen du aniztasuna islatzeko modurik onena autonomian sakontzea dela: “politikagintzatik at egoteak eman dio Euskarabilari daukan arrakasta” (6).

Euskarabilak egindako bideari ere egin zaizkio kritikak. Badirudi hasierako urteetan jarduera gehienak ez zirela kalean egiten eta horrek zenbait kideren kritikak ekarri ditu. “Hasieran jarduerak lokalean egiten ziren” (1). “Euskarabila urte luzeetan funtzionamendu burokratikoan estankatu da” (10).

Horrez gain, Basauriko euskaldun batzuek elkartearen bizkar delegatu egin dutela esan du batek baino gehiagok: “Euskaldun askok guregan nolabaiteko ardura laga dute... Lasaitu ederra hartu ere” (2).

BBB ekimena askotan aipatu izan da. Guztiek ekimen arrakastatsutzat jo dute, herriko ikur bihurtzerainoko bidea egin duela ia-ia. Arnasgunea da, mugimendua dakar, aniztasuna islatzen du. Eta abar. “Basauri mailan egin den ekimen eta, are garrantzitsuagoa, lanketarik potenteena izan da” (28). “Uste dut BBB herriko ikur egin dela” (32). “Mugimendua berreskuratu da” (10). “Egun batean gutxienez euskaldunok Basaurin indartsu sentitzen gara” (4).

Hala ere, arrisku zenbait ere ikusi diote parte hartzaileetako batzuek ekimenari. Alde batetik, egun bateko ekimena da eta ikerketan parte hartu duten batzuek motz ikusi dute. Izan ere, “badu arriskurik ere ispiluan geratzea” (24).

Era berean, festa egunak jende euskarara “modu efektiboan erakartzeko ez dut hain argi ikusten” (25) aipatzen du batek baino gehiagok. Gainera,

etengabeko lanketa egin beharko litzatekeela esaten dute parte hartzaileetako askok: “BBBren arrakasta, urte osoan zehar lantzen diren ekimenetarako aprobetxatu egin behar da nola edo hala” (6).

Beste alde batetik, tamaina ere aipatu dute ikerketan parte hartu dute-netako batzuek: “arriskua dauka, bere tamainagatik, jendea erretzeko” (4). Eta, horri lotuta, jaialdia antolatzeko “pertsona gehiagoren inplikazioa” (7) beharrezkoa litzatekeela uste dute parte hartzaileetako batzuek.

BBBren helburuetako bat izan zen Euskarabila biziberritzea (elkarte gisara). Hala ere, ez dirudi erabat bete duenik helburu hori: “Ekimen erreferentzial bihurtu da herrian, jende askoren inplikazioa lortu da baina elkarte biziberritzeko ez du balio izan” (16).

Jaialdiaren indargune parte hartze librea dela aipatua izan da behin baino gehiagotan: “arrakasta parte-hartze zabalean izan du batik bat” (16). Hala ere, parte hartze libre hori jagon egin behar dela uste du parte hartu duen batek baino gehiagok:

“Jendeak parte hartu behar du nahi duelako, nahi duen moduan, eta modu ahalik eta ludikoenean, bestela inbentoa amaituko da” (10).

Gailendu den beste ikuspegi bat izan da BBB ekimena helburu moduan baino, tresna moduan erabiltzea. Hau da, egun horren inguruan sortutako konplizitateak ehundu, saretu eta aprobetxatu beharko litzuzkeela Euskarabilak urtean egiten dituen beste ekimen batzuk sendotzeko: “BBBn beste elkarte eta eragileekin landutako kolaborazio eta elkarlanean sakontzea iruditzen zait garrantzitsuena” (25).

5.2 Komunitategintza

Euskarabilak zer egin beharko luke aurrera begira? Zer urrats eman beharko litzuzke komunitatea egituratzeko eta artikulatzeko? Galdera horiek (eta antzeko beste batzuk) daude komunitategintza atal honen azpian.

Iritzien eta bizipen mapa honetan parte hartu duten iritzi-emaile gehienek uste dute Euskarabilak aurrera begira euskaraz bizitzeko urratsak eman behar dituela. “Euskarabilak jarraitu beharko luke euskaldunei ekintzak eta espazioak euskara hutsean eskaintzen” (7).

Horretarako, “ilusioa, gogoia, bizipoza...” (16) landu behar dituela uste dute parte hartzaile gehienek. Hau da, Euskarabilak lagundu, erraztu behar du Basaurin ekintza gehiago euskaraz egin daitezen. Izan ere, helburua litzateke euskararen aldeko lana zabaltzea bazter guztietara, parte

“Uste dut BBB herriko ikur egin dela”.
“Mugimendua berreskuratu da”.
“Egun batean gutxienez euskaldunok Basaurin indartsu sentitzen gara”.

“Basaurin, beste herri askotan bezala, bi herri daude: gaztelaniaz eroso bizi dena (herritar gehienek herria bide batez) eta euskaraz bizi gura dugunon herritxo sakabanatu eta prekarioa. Eta herritar gehienek ez digute ulertu nahi izaten” .

hartzaile batek adierazi bezala. “Konplize horiek mimatu behar ditugu, ahal den heinean euren elkarte eta taldeko eragile bihur daitezen: Euskarabila txiki bat egon dadin bazter guztietan” (24). Hau da, “euskarazko ekintza gehiago egin daitezen, herriko taldeekin, eragileekin eta herritarrekin harremanetan egon behar du Euskarabilak” (11).

Beste alde batetik, kideetako batzuek azpimarratzen dute pedagogia lanak ere egin behar dituela Euskarabilak. Izan ere, hizkuntza baten normalizazioan eragiten duten oinarritzko kontu gehienak ez daudela errotuta Basaurin uste dute parte hartu dutenetako batzuek.

“Zelan justifikatu behar dugu gure hizkuntza gutxitua izanik, egoera desberdinean egonda, hartu beharko litzatekeen hainbat neurriren ezinbestekotasuna ... Galdera erretorikoak dira, jakina” (19).

Hirugarrenik, Basaurin lubakiak daudela uste dute ikerketan parte hartu duten kide gehientsuenek. Nabarmenena akaso euskaldun eta erdaldunen artean dagoena litzateke. “Basaurin, beste herri askotan bezala, bi herri daude: gaztelaniaz eroso bizi dena (herritar gehienek herria bide batez) eta euskaraz bizi gura dugunon herritxo sakabanatu eta prekarioa. Eta herritar gehienek ez digute ulertu nahi izaten” (19).

Baina, horrez gain, Basauriko euskaldunen artean lubakiek indarrean dirautela uste dute ikerketan parte hartu nahi izan dutenetako batzuek. “Iruditzen zait *Basaurin Be Bagara* ekimenetik kanpo egiten diren gauzak oraindik guetto kutsu bat daukatela” (33). Lubaki horrek, batez ere, urruntzen ditu aktiboak diren euskaldunak eta gehiengo den gainontzeko euskaldunek osatutako multzoa. Hala ere, lubaki hori esparru ideologikoan ere zedarritzen dela barrundatzen dute parte hartzaileetako batzuek (eta zerikusia du aurreko atalean batzuek Euskarabila hautu politiko batekin lotu izanarekin).

Laugarrenik, eta aurreko bi puntu horiei zeharo loturik, konplizitateak eta sareak sortu beharko liratekeela uste dute ikerketan parte hartu duteneko batzuek (BBBtik abiatuta beti ere):

“Basaurin Be Bagarak komunitategintzarako bide asko zabaltzen dituela esango nuke, praktika egokia izan litekeela, ilusioa piztu ere egiten duela askorengan, eta elkarte horien bidelagun izateko gai izango balitz, ahalduntze bidean jartzea lortuko balu, konplize sare garrantzitsua izango luke sektore askotan” (24).

Bosgarrenik, elkarteak egin dituen lanaren emaitzak orain arte baino gehiago ezagutzera eman beharko lituzkeela iritzi dute ikerketaren ba-

rruan ibilitako kideetako batzuek. “Gizarteratze lanean indarrak jarri beharko lirateke, euskaldun asko daudelako Basaurin (hasieran ematen duen baino askoz gehiago) eta hauek ere jakin beharko dute (Euskarabila) eskura dutela” (32).

Euskarabilak egunerokoan egiten duen lana berrikusi beharko litzatekeela iritzi duenik ere bada. “Euskarabilak aurpegi garbiketa bat beharko lukeela uste dut. Egungo beharrizanetara egokitu eta urteotan egin dituzten ekimenen hausnarketa bat egin ere. Jakina da Basaurin euskara askorik egiten ez dela. Hori bultzatzeko Euskarabila daukagu eta behar bada mugatuta geratzen da lanketa hori” (15).

5.3 Euskarabila eta Basauriko udalaren arteko harremanak

Elkartearen eta udalaren arteko harremanen nolakotasunak zeharkatu ditu partekatze koral honetan parte hartu dutenen askoren hizketagaia. Hala ere, hasieratik funtsezko bereizketa bat egin beharko litzateke: arlo teknikoari dagozkion harremanak eta arlo politikoari dagozkionak.

Arlo teknikoari dagokionez, parte hartzaile guztiek aipatu dute Euskarabilak eta udalak harreman sakona eta berezia beharko luketela arlo honetan.

“Kultura eta euskara departamentutik Euskarabilarekin batera lan estua botatzen da faltan” (32).

Inork ez du zalantzan jartzen Euskarabilak parte hartu behar duela Basaurin egon daitezkeen foroetan. “Euskara Batzordean egon beharko dugula uste dut beste elkarteek oso arraroa ikusiko luketelako gu ez izatea” (31).

Beste kontu bat Euskara Batzorde horren funtzionamenduaz eta funtzioez parte hartzaileek uste dutena.

“Zertarako balio du batzorde horrek? Aholkurako bakarrik balio du eta askotan propaganda batzordea dela uste dut” (6).

“Euskara batzordea ere dago udalean, baina, duen papera kontsultarako da eta azken finean, ez du funtzionatzen urtean birritan gehienez biltzen delako, eta, ia guk bakarrik hitz egiten dugulako, egin behar diren eta egiten ez diren gauzak aipatzeko” (31).

Eta, gainera, ikerketan parte hartu dutenek ez dute esperantza handirik erakutsi arlo teknikoan aurrerapausoak emateko. “Udalaren arlo teknikoarekin ezin dugu lanik egin” (8). “Euskara teknikariak ere ez du bidea errazten” (16).

Arlo politikoan, harremanak ez dira, ikerketan parte hartu duten iritzi-emaile gehienen ustez behinik behin, nahi bezain sakonak eta naturalak. Mesfidantzak eta errezeloak nagusi dira elkarte eta udala kudeatzen duen alderdi politikoaren artean.

“Elkarlana eta autonomia uztartu ahal izateko, elkartea zenbat eta sendoagoa hobe. Elkartea sendo egoteak interpelatzeko gaitasuna, ziurtasuna eta autoritatea ematen dizu (guri, gure ahultasunean, askotan falta izan zaiguna) eta udalak berak ere errespetu edo tentu gehiagoz hartuko du elkartea”.

Hala ere, badirudi plangintzari buruz ere ikuspegiak ez datozela bat (arloteknikoan) elkartea eta udalaren artean.

“Plangintza ikuspuntuak ere oso bestelakoak dituzte udal-arduradunek: ekintza puntualak aurrera eramaten bertan goxo ari da bertako teknikaria eta benetako hizkuntza-normalizazioak udalerrian beharko lituzkeen oinarriko gabeziei heltzeko asmorik ez duela uste dut” (16).

Arlo politikoan, berriz, harremanak ez dira, ikerketan parte hartu duten iritzi-emaile gehienek ustez behinik behin, nahi bezain sakonak eta naturalak. Mesfidantzak eta errezeloak nagusi dira elkartea eta udala ku-deatzen duen alderdi politikoaren artean.

“Ez dago elkarlanik eta bakoitza bere bidetik dabil, nahiz eta ekitaldi puntualetan bat egin” (16).

Esan bezala, adostasuna dago harreman horiek ez direla behar bezain onak. Hala ere, horri aurre egiteko orduan desadostasunak agerian geratzen dira. Batetik, ikerketaren parte izan diren kideetako batzuek ikuspegi pragmatikoaren alde egiten dute. Horiek elkarren arteko oztopo izateari uztearekin konformatu egingo lirarteke.

“Argi dago gatazka egon badagoela, eta polita litzatekeela gutxienik gatazka hori ahultzea” (4).

Beste batzuek, ostera, udalarekin zenbat eta harreman gutxiago izan, hobe lukeela Euskarabilak uste dute:

“Nire ustez udalarekin mantendu beharko zen harremana informatzera eta baliabideen eta infrastrukturen eskaintzera mugatu beharko zen. Hortik aurrerakoak nire ustez udalaren esku hartzea eramango zukeen” (33).

Baina, beste askok, ostera, handik harago jo eta elkarlana goraiatu egin dute. Hau da, udalak zein elkarteak norabide berean lan egin beharko luketela uste dute, helburuak eta bideak haien artean finkatu eta banatuta.

“Mundu perfektu batean Basauriko udalak ulertu beharko luke Basauriko elkarteek herria aberastean dutela, herrian dauden gabeziak identifikatu ahal dituztela elkarte horiek eta herritar guztien administrazioa den heinean lagundu beharko lituzke” (12).

Hala ere, elkarlana eta autonomia uztartzeko, Euskarabila sendoagoa behar duela izan dioenik ere bada ikerketan parte hartu dutenen artean:

“Elkarlana eta autonomia uztartu ahal izateko, elkarteak zenbat eta sendoagoa hobe. Elkarteak sendo egoteak interpelatzeko gaitasuna, ziurtasuna eta autoritatea ematen dizu (guri, gure ahultasunean, askotan falta izan zaiguna) eta udalak berak ere errespetu edo tentu gehiago hartuko du elkarteak” (24).

Dena den eta iritziak iritzi, parte hartzaileetako batzuek uste dute Euskarabilaren lehentasuna ez litzatekeela udalarekin harreman ona izatea behar. Laguntzen du egunerokoan, epe ertain eta luzean, baina benetako lehentasuna Basauriko euskaldunak lirake, hauen ustez.

5.4 Elkartearen barne-bizitza

Hasteko eta behin, iritzi-emaile gehienek aipatu izan dute elkarteak lantalde txikiegia duela landu nahiko lituzkeen erronketarako.

“Bazkiderik ez da galdu seguruezt, gehiago gara gaur egun, baina, eguneroko lanean jarduteko lagun gutxi dago, barne egitura minimo bati eusteko zailtasunak dituena. Zer esanik ez, Basaurin Be Bagara moduko ekimen erraldoi bati aurre egiteko...” (19)

Eta ez hori bakarrik: gehienek ere aipatu dute derrigorrezkoa dela jende berria erakartzea elkartera.

“Elkarteak sendotzeko “lehentasuna” hizkuntzan jarriko duen jendea behar dugu, beste mila saltsatan buru belarri ez dabilena... eta hori da orain artean lortu ez duguna; urtea joan urtea etorri, hausnarketa gora eta behera, erantzuten asmatu ez dugun galdera” (24).

Eta, ahal dela, gazteak erakartzea:

“Euskarabila zahartzen ari dela esango nuke. Zahartze horrek gazteak erakarri baino uxatu egiten ditu, dela jende zaharragatik, dela lan modu zaharregatik. Elkarteak biziko bada eta sendotuko bada gazteak behar ditu, odol berria, jende berria, modu berriak” (24).

Baina zelan erakarri pertsona horiek elkartearen jardunera? Gai honen inguruan hainbat iritzi (batzuetan kontrajarriak) agertu dituzte ikerketan parte hartu dutenek. Alde batetik, batzuek uste dute jendea erakartzeko biderik onena jardun erakargarria izatean datzala.

“Bazkide berriak jardunak erakartzen ditu. Ez da kanpaina erraldoirik behar. Kolean bazaude, jendea zuregana dator, eta lokalean itxita bazaude, ez” (10).

“Elkarteak sendotzeko “lehentasuna” hizkuntzan jarriko duen jendea behar dugu, beste mila saltsatan buru belarri ez dabilena... eta hori da orain artean lortu ez duguna; urtea joan urtea etorri, hausnarketa gora eta behera, erantzuten asmatu ez dugun galdera”.

**Euskarabilak
bazkideak
mimatu beharko
lituzke orain
baino gehiago.
Horretarako,
batek baino
gehiagok aipatu
du elkartean
parte hartzeko
maila eta bide
guztiak onartu
beharko
liratekeela. Eta
ez hori bakarrik:
maila eta bide
horiei garrantzi
bera aitortu
beharko
liratekeela.**

Beste alde batetik, batzuek uste dute komunikazio lana egin beharko litzatekeela:

“Jendea erakartzeko komunikazio lanari emango nioke lehentasuna. Argi geratzen ari da lanerako-eta ez dela inor mugitzen, beraz egiten den apurra arakastatsua izan beharko da eta horren berri etengabe eman” (16).

Era berean, ikerketan parte hartu duten kideetako askok aitortu dute arazo hau ez dela bakarrik Euskarabila elkartekoa, beste hainbat elkar-terena ere badela, bai Basaurin zein Euskal Herrian oro har.

“Elkartegintzaren krisia Euskal Herri osoko fenomeno da, eta Euskarabila ez da salbuespena izan” (28).

Hala ere, baten batek aipatzen du jendea erakartzea baino hurbildu den jende hori mantentzea ere funtsezko lana dela. Eta, horretarako, hurbiltzen diren lagunei lana askatasunez eta gustuz egitea ahalbidetu beharko luke Euskarabilak.

“Nire ustez, askotan arazoa ez da izan jendea erakartzea, baizik eta jende hori mantentzea. Nire ustez, hausnarketa gako horretan datza. Etengabeko ahalegina egin daiteke jendea erakartzeko, baina jendeak ez badu nahi lanean zurekin segitu?” (4).

Bestelako kontu batzuk ere ekarri dituzte parte hartzaileek orriotara. Elkarteak komunikazioa, konfiantza, motibazioa, bizipoza, konpromisoak eta enparauak sustatu beharko lituzke. Izan ere, ematen du elkarteak proiektatzen duen irudiak lana, zama eta ardurekin zerikusia duela. Eta, horrela, lagun berriak erakartzea zaila gertatzen da.

“Ez dut uste elkartean sartzeko interesatutako jende gehiegirik dagoenik; erronka bestelakoa dela uste dut: interes hori piztean dago gakoa (sentsibilizatu, motibatu.. ilusioa landu, azken finean)” (16).

Bestetik, Euskarabilak bazkideak mimatu beharko lituzke orain baino gehiago. Horretarako, batek baino gehiagok aipatu du elkartean parte hartzeko maila eta bide guztiak onartu beharko liratekeela. Eta ez hori bakarrik: maila eta bide horiei garrantzi bera aitortu beharko liratekeela.

“Bazkideak mimatzeko elkarte batek oso argi izan behar du bazkide izateko maila ezberdinak daudela, askok haien egoera pertsonala dela eta oso pasiboak izan ahal dira, beste batzuk berriz aktiboagoak, partehartze maila horiek onartu behar dira eta denei garrantzi bera aitortu behar zaie” (12).

Informazioari dagokionez, parte hartzaileetako guztiek aipatu izan dute Euskarabilak egiten duen esfortzua bazkideak informatuak izateko:

“Lekutan gelditu da aspaldiko Aikor!, aldiro paperean ateratzen zen barne buletina. Orain informazioa digitalean heltzen zaigu, ekintzaz ekintza eta hileroko agenda ere. Gainera, hainbat zozketa egiten dira ekintza batzuk gogorarazteko edo indartzeko, txartelak, sarrerak... oparitut. Dudarik gabe, gehiago egin ahal izango da euskaldunok sareteko eta sareak euskalduntzeko baina, Euskarabilatik egiten dena, primeran egiten da” (19).

6. ONDORIOAK

Ikerketa hau hasieratik gidatu duten hipotesi-baieztapenak kasu azterketaren errealitatearen galbahetik pasatu egin behar dira taxuzko ondorio batzuk erauzi ahal izateko.

1. Lehen hipotesia: *“Basaurin Be Bagara* ekimenak erreferentzialtasuna lortu du, baina ez du jendea erakarri Euskarabilaren egunerokora”. Eta, ikerketan parte hartu dutenek esandakoak aintzat hartuta, ematen du hipotesia berretsi egin dela. Izan ere, Basaurin Be Bagarak urte gutxian erreferentzialtasun handia batu du, ia-ia herriko ikono bihurtu arte. Baina horrek ez du ekarri jende gehiago elkartearen eguneroko jardunera.

Hala ere, parte hartzaileetako askok aipatu izan dute *Basaurin Be Bagara* ekimenaren bidez Euskarabilak lortu duela erreferentzialtasun handia euskalgintzaren barruan eta Basaurin. Gainera, ekimen horren bidez, herriko hainbat elkarte eta eragilerekin konplizitateak sortu egin dira, igurtziak lortu egin dituzte. Sare horiek aprobetxatu beharraz aritu da parte hartzaileetako bat baino gehiago, elkarte, kolektibo eta eragileetan nolabait *“Euskarabila”* txikiak egon edo sor daitezten. Hau da, baten batek elkarte horien barruan euskararen aldeko lana egitea, Euskarabila elkarteko kide izan ez arren.

Sare, harreman eta konplizitate horiek mimatu beharraz ere aritu da ikerketan parte hartu duen bat baino gehiago. Sare horiek sakondu, sendotu, trinkotu: Basaurin Be Bagarekin lortutako erreferentzialtasun horri etekina atera, azken finean. Agian elkartearen biziberritzea bide horren inguruan ondu daiteke. Agian zaila dauka Euskarabilak euskara *“lehentasun”* moduan duen jendea aurkitzen. Agian errazago dauka Euskarabilak sare horietan euskararen aldeko lana egiteko duen jendea aurkitzen.

Basaurin Be Bagarak urte gutxian erreferentzialtasun handia batu du, ia-ia herriko ikono bihurtu arte. Baina horrek ez du ekarri jende gehiago elkartearen eguneroko jardunera.

2. Bigarren hipotesia: “elkartearen erdigunea osatzen duten kideek ez dute erakusten Basaurin elkarteak berak duen aniztasuna (genero aldetik, adin aldetik eta, batez ere, ideologia aldetik)”. Ematen du bigarren honen formulazioan ere asmatu nuela. Hala da: badirudi elkartearen erdigunea adin batetik gorako euskaldunek betetzen dutela, badirudi, gainera, kide horiek nola edo hala hautu politiko jakin batekin (ezker abertzalearekin) lotzen duela jende batek (ez dut esan nahi horrela denik, ezta Euskarabilak jardun alderdikoia duenik ere).

Hala ere, kasu honetan ere ñabardurak beharrezkoak dira. Izan ere, ikerketan parte hartu duten kideetako askok esaten du Euskarabilak jarraitu behar duela jardun ez alderdikoia egiten eta kalera begira ematen duen irudia horretan datzala, eta ez horrenbeste aurpegietan. Argi dago jarduna dela funtsezkoena, jarduna dela erdigunea, baina nire ustez horrek ez du esan gura irudia zaindu behar ez denik.

Gainera, *Basaurin Be Bagara* ekimenean Euskarabilak bai ematen du aniztasun irudia, bai islatzen du bere baitan dagoen aniztasuna (genero, ideologia eta adin aldetik). Agian irudi horrekin nahikoa da, agian irudi horrek zabaldu diezazkioke Euskarabilari berari atearik (ez badizkio ireki dagoeneko).

3. Hirugarren hipotesia: “Euskarabila elkartearen eta Basauriko udalaren arteko harremanak ez du laguntzen Basauriko euskaltzale batzuk elkartearen inguruan aktibo bihurtzen”. Egia da Euskarabila eta Basauriko udalaren arteko harremanak ez direla behar bezain sakon eta eraginkorrak, ez alderdi teknikoari dagokionez, ezta alderdi politikoari dagokionez ere. Egia da ere (parte hartzaileek esandakoa aintzat hartuta) hau izan dela Euskarabila elkartearen lehen-tasunetako bat ia-ia sorreratik (nahiz eta ez dituen eman elkarteak nahi izan dituen fruituak).

Era berean, ematen du harreman honek hein batean ez duela ahalbideratu pertsona batzuk elkartera hurreratzea. Hala ere, parte hartzaileetako gehienek ez dute uste hori erabat zuzena denik. Izan ere, parte hartzaileetako gehienek uste dute udalarekin izan beharreko harreman natural eta osasuntsuak hortik haragoko ondorioak ekar ditzakeela. Hau da, harreman horrek egunerokoan ez ezik, eragin sakonagoak izango dituela uste dute askok.

Elkarlana da, batez ere, azpimarratzen dutena parte hartu duten kideek. Beste alde batetik, batzuek uste dute udalarekin harreman

osasuntsua izatea ez dela Euskarabilak lehenetsi beharreko helburua. Izan ere, hauen ustez Euskarabilak ardura luke Basauriko euskaldunekin eta euskaltzaleekin. Baina, era berean, kide hauek ere uste dute harreman naturalagoa izateak gauzak erraztuko lituzkeela.

Beraz, eta iritziak iritzi, nire ustez ezin da baieztapen-hipotesi hau guztiz berretsi. Izan ere, argi dago harreman naturalago batek gauzak erraztuko lituzkeela. Baina, eta ikerketa parte hartu duten kideen iritziak irakurrita, ez du ematen harreman hobe batek elkartearen egunerokora jende gehiago erakarriko zuenik. Izan daiteke, baina ez du ematen bien arteko eragin zuzena egon daitekeenik.

4. Laugarren hipotesia: “Euskarabilak ez ditu kontziente landu edozein jendarte mugimendu edo talde baldintzatzen duten hiru faktoreak: norbera, taldea (elkartea osatzen duten bazkideak batez ere) eta proiektua”.

Ikerketan parte hartu dutenen berbak irakurrita, alde batetik ematen du Euskarabilak kontziente izan dituela hiru puntu horiek bere jardunean eta pentsaeran. Taldea hartu du aintzat: bazkideak informatu egin ditu, taldearen parte sentiarazteko lana egin izan du, hainbat parte hartze modu jarri ditu mahai gainean... Proiektua ere izan du Euskarabilak ikusmiran: funtzioak eta jardunak landu egin ditu, berriro formulatu ditu, aliantzak bilatu ditu (gatzatu diren ala ez beste kontu bat da), helburuak zehaztu, ekimen berritzaileak abian jarri eta abar. Norberaren arloa ere landu duelakoan nago. Izan ere, elkarteko kideen bizipoza, autoerrealizazioa, iritziak eta abar izan ditu aintzat elkarreak bere jardunean.

Esan dudan bezala, hiru faktoreak (norbera, taldea, proiektua) landu ditu Euskarabilak. Hala ere, lantzeak ez dakar berez hiru faktore horietan gura izan ziren helburuak lortzea. Eta horixe da, nire ustez, parte hartzaile gehienek euren iritzietan islatzen dutena. Euskarabilak taldea landu du, bazkideak informatu ditu, sentiarazteko lana egin du, parte hartze moduak eskaini ditu... baina talde horrek ez du behar besteko erantzunik eman. Agian, Euskarabilak ez du asmatu lantzeko moduarekin, baina, era berean, badirudi Basauriko euskaldun batzuek elkartearen kideen bizkar delegatu egin dutela eurei zegozkien funtzio batzuk (edo hori ematen dute aditzera ikerketan parte hartutako kide batzuek).

5. Bosgarren hipotesia: “Euskarabilak ez du behar beste jendarteratu Basaurin euskararen erabilerak aurrera egin dezan beharrezkoa dela hiztun ahaldunduen lana eta elkartea bera dela horiek aktibatzeko

Euskarabilak taldea landu du, bazkideak informatu ditu, sentiarazteko lana egin du, parte hartze moduak eskaini ditu... baina talde horrek ez du behar besteko erantzunik eman. Agian, Euskarabilak ez du asmatu lantzeko moduarekin, baina, era berean, badirudi Basauriko euskaldun batzuek elkartearen kideen bizkar delegatu egin dutela eurei zegozkien funtzio batzuk.

Ikerketan parte hartu duten kide gehienen iritziz, Basaurin orain eta hemen hizkuntza normalizazioaren inguruko diskurtso eta praktikak ez daude behar beste jendarteratuta. Euskarabilak hizkuntza normalizazioaren oinarrien inguruko pedagogia lana egin behar duela iritzi diote.

katalizatzaile nagusienetakoa”. Baieztapen honetan bi kontu nabarmendu gura ditut hasi baino lehen: hiztun ahaldunduen lana eta elkarte delak horiek aktibatzeke katalizatzaile nagusienetakoa. Izan ere, nire ustez, bi horien baitan egon daiteke hipotesi honen muina.

Ikerketan parte hartu duten kide gehienen iritziz, Basaurin orain eta hemen hizkuntza normalizazioaren inguruko diskurtso eta praktikak ez daude behar beste jendarteratuta. Euskarabilak hizkuntza normalizazioaren oinarrien inguruko pedagogia lana egin behar duela iritzi diote ikerketan parte hartu duten gehienek. Eta hori bat dator nik esandakoarekin.

Baina ... ikerketan parte hartu duten kideek ez dute hain argi euskaldunak aktibatzeke katalizatzaile nagusienetakoa Euskarabila izan behar denik. Euskarabilak sustatu, bultzatu behar ditu euskarazko jardunak Basaurin. Hori nahiko garbi geratu da. Baina Euskarabilak antolatu behar dituenik ez dago horren argi. Elkarteak lan egin beharko luke besteek euskarazko jardunak, euskarazko ekintzak, euskarazko harremanak sor ditzaten. Baina agian eraginkorragoa da Euskarabilak antolatzea baino, besteek antola dezaten lan egitea. Beste berba batzuekin esanda, egin eta eragitearen arteko dikotomiaren sokatiran eragin horri balio gehiago ematen diote parte hartu duten kideek.

6. Seigarren hipotesia: “2012an egindako gogoeta-prozesuak balio izan du elkarteari buelta bat emateko, baina oraindik sakondu beharko litzateke prozesu horretan zirriborrotutako ildoetan”. Egia esateko, Euskarabilak 2012an egindako gogoeta-prozesua oso kide gutxik aipatu dute eta, gainera, aipatu dutenean gainetik aipatu dute eta *BBB* ekimenari lotuta. Hortaz, ematen du gogoeta-prozesu horrek ekarri duen fruitu bakarra (edo nagusia behinik behin) *BBB* izan dela.

Hala ere, gogoeta-prozesu horretan landu ziren beste hainbat puntu alde edo molde agertu izan dira (kukututa agertu arren bakan batzuetan). Ematen du, dena den, prozesu hark ez duela *BBB* ekimenetik harago arrasto sakonik utzi elkartearen egunerokotasunean. Eta horrek iradokitzen du gogoeta-prozesu horretan aipatu ziren hainbat eta hainbat puntu ez direla behar bezala jorratu, ez zaiela behar besteko garrantzirik eman (seguruena elkarteak ez duelako horiek aurrera eramateko astirik ez indarririk).

Beraz, alde horretatik ematen du Euskarabilak ez duela izan modurik gogoeta-prozesu horretan plazaratutako hainbat eta hainbat konturi

oratzeko. Hala ere, ezin da inola ere ahaztu prozesu horren ondorioz sortu zela BBB ekimena. Eta ekimen hori da, hain zuzen ere, Euskarabilaren historia egiteko parte hartzaile gehienek aipatzen duten mugarrria. Euskarabila asko aldatu baita ekimena martxan jarri zenetik.

6.1 Aurrera begirako proposamen batzuk

Hasi aurretik, ohartxo bat egin gurako nuke. Hemendik aurrera botako ditudanak nire berbak dira, nik ikusi, sentitu eta plazaratutakoak. Hau da, ikertzaile batek kanpotik egindako ekarpenak dira. Kanpoko begiek egindakoak dira, horrek dakartzan mugekin eta ekar ditzakeen onurekin. Era berean, saiatuko naiz kategorikoa ez izaten, proposamen xumeak diren heinean.

Proposamenak hiru arlo nagusitan banatu ditut: norbera, taldea eta proiektua izeneko arloetan hain zuzen ere (Joxemi Zumalabe, 2016).

Norberaren arloari dagokionez, nire ustez Euskarabilak arreta gehiago jarri behar du bere kideen zaintzan. Lantalde txikia du, antza, elkarteak. Eta, askoren iritziz, berri eta gaztetu beharrekoa. Zaila da oso gai honen inguruan proposamen zehatzik egitea. Baina, tira, agian egin beharreko lehendabiziko kontua dauden militanteak kontuan hartzea dateke. Hau da, bizipozari eta ondo pasatzeari ahal den neurrian garrantzia ematea eta, ahal dela, bakoitzaren iritzi eta gustuak kontuan hartzea lanak banatzerakoan.

Beste alde batetik, agian Euskarabilak zuzendaritzan parte hartzen duten kideen prestakuntza eta formazioari ere eman beharko lioke garrantzia. Beharbada formazio hori ez litzateke horrenbeste izan behar hizkuntza normalizazioari buruz edo soziolinguistikaren oinarriari buruz. Prestakuntza gehiago enfokatu beharko litzateke taldeen dinamizaziora, kudeaketa kontuetara, helburuak eta plangintzak egokiago egikaritzera, komunikazio egokira eta horren antzeko gauzetara. Hau da, edozein elkarteren egunerokoan eragiten duten kontuetara.

Zentzu horretan, elkarteko kide berriei ondo etorria modu formalean antolatzeke saioak hartu beharko lituzke bere gain Euskarabilak, nire ustez. Hau da, elkarteko kide berriei harrera egiteko dokumentua eta praktika litzateke ondo etorria: elkartea zer den, zer egiten duen, zeintzuk diren helburuak, baliabideak, zeintzuk diren lan ildoak, zeintzuk arduradunak... Horrela, elkarteko kide berriei agurra modu formalean egingo litzaieke. Era berean, ariketa bera egiteak ekar diezaike elkarteari onurarik. Askotan jakintzat ematen diren kontu asko papereratzeak begi aurrean dagoen errealitatea beste begi batez ikustea ekar dezake.

Proiektuaren parte senti daitezen, lana egiten jarraitu beharko luke Euskarabilak, nire iritziz. Horretarako, adibidez, Euskarabilak elkartean parte hartzeko bideen mapa egin dezake: non parte hartu dezakeen bakoitzak, zertan, zer intentsitatearekin... Horrek ireki lezake parte hartzeko moduen errepertorioa bazkideen artean.

**Proiektuari
dagokionez,
Euskarabilak
zubiak eraiki
behar dituela
ematen du. Izan
ere, maila
politikoan egon
daitezkeen
mesfidantzak
gainditzeko lana
egin behar duela
esan dute parte
hartzaileetako
gehienek.**

Taldearen arloari dagokionez, Euskarabilak ez luke bazter batera utzi behar, nire ustez gutxienez, bazkideen zaintza. Zaintza horrek, alde batetik, bilatu behar du bazkideak informatuak egotea, baina harago joan daitekeela uste dut. Bazkideei, nire ustez, elkartearen helburuak eta filosofia azaldu egin behar zaie, pedagogia lanak eginez zirimiri moduan (blaitu arte). Horri lotuta, agian Euskarabilak bere buruari galdetu beharko lioke ea ez duen bazkideen prestakuntzari garrantzirik eman behar. Bazkideen prestakuntzaz ari naizenean, oinarritzko soziolinguistika pilulaz ari naiz, soziolinguistika domestikoaz¹³ ari naiz.

Horrez gain, proiektuaren parte senti daitezkeen, lana egiten jarraitu beharko luke Euskarabilak, nire iritziz. Horretarako, adibidez, Euskarabilak elkartearen parte hartzeko bideen mapa egin dezake: non parte hartu dezakeen bakoitzak, zertan, zer intentsitatearekin... Horrek ireki lezake parte hartzeko moduen erreperitorioa bazkideen artean.

Era berean, Euskarabilak zuzendaritzako taldea ere zaindu beharko luke (nolabait bere burua zaindu). Horretarako, bilerak eraginkorrago egiteko neurriak har ditzake elkarteak (esate baterako, bilerak amaitzeko orduak zehaztu, edo bileren aurretik landuko diren gaiak zerrendatu). Gainera, eta taldea mimatu eta zaintze aldera, ardurak postuak txandakatu ditzake kideen artean (ez naiz kargu ofizialei buruz ari, talde guztietan egoten diren kargu "informalei" buruz baizik).

Komunikazio lana ere beharrezkoa da taldea behar den moduan zurkaizteko. Badirudi orain arte Euskarabilak ondo egin duela lan hori. Hala ere, beti dago zer hobetua eta, ez badago ere, zaila da komunikazio lan eraginkorra mantentzea denboran zehar. Aintzat hartu beharreko kontua da hauxe, duda barik.

Proiektuari dagokionez, azkenik, nire ahotik proposamen batzuk helarazi nahi ditut, nahiz eta horietako askoren oinarria ikerketa parte hartu dutenen berbak izan. Alde batetik, Euskarabilak zubiak eraiki behar dituela ematen du. Izan ere, maila politikoan egon daitezkeen mesfidantzak gainditzeko lana egin behar duela esan dute parte hartzaileetako gehienek. Baina, tira, hori zelan egin? Horixe litzateke erantzun beharreko galdera. Jakina da gai honetan ez dagoela denetarako balio dezakeen errezetarik. Hala ere, parte hartzaileetako batek iradoki bezala, nire ustez biderik emankorrena izan daiteke maila pertsonaleko harremanetatik abiatuta.

Beste alde batetik, nahiko garbi dute parte hartzaileek BBB helburu moduan baino, tresna moduan erabili egin behar dela. Hau da, etengabeko lanketa egin, konplizitateak eta igurtziak landu, saretu, ehundu. Ni ere

bat nator iritzi horrekin. Nire ustez, *BBB* ekimenarekin Euskarabilak lortu du plaza hartzea, modu ludiko eta parte-hartzaile baten bidez. Baina horretan bakarrik geratzearen arriskua izan dezake (hala ere, bada zerbait, euskara lotzea balio positibo horiekin). Baina, tira, nire ustez Euskarabila saiatu beharko litzateke sare horiek trinkotzen. Parte hartzaileetako batek esan bezala, agian egoerarik idealena izan liteke Euskarabila txiki bat eratzea parte hartzen duten elkarte, kolektibo eta eragileetan.

Gazteak erakartzearen inguruko kezka ere plazaratu da behin baino gehiagotan ikerketan zehar. Gai benetan korapilatsua da hau. Eta, aurreko beste askotan bezala, irtenbide magikorik ez duena. Lana egin behar da erruz eta, hala ere... Dena den, nire ustez, gakoa parte hartzaileetako batek ematen du. Hark dio gazteen autonomia eta autogestio gogo eta beharra hartu behar dela kontuan eta horren arabera jokatu, espazioak irekiz, aukeraz zabalduz. Bat nator, nire ustez hori izan daiteke gazteengana hurreratzeko modu egokia, baina, hala ere, horrek emaitzarik ez ekartzea posible izan daiteke.

Azkenik, edozein mugimenduk bere arrastoa utzi behar du jendartean. Eta, ahal duen neurrian eta indarrak indar, jendarte hori eraldatzen saiatu. Hortaz, nire ustez, Euskarabilak Basaurin bizi-eredu aurreratzailerak martxan zelan jarri hausnartu beharko luke. Hau da, Euskarabila elkartearen balio nagusiak (batez ere, euskaraz bizitzaren aldeko hautua, hori izan baita parte hartu duten kideek behin eta berriro azpimarratu dutena) egunero gorpuztu eta haragitzeko dinamikak asmatu beharko lituzke elkarteak. Eta, horiek aurrera eramateko, *BBB*ren abaroen sortutako sareak eta ehunak erabil daitezke, aprobeitza daitezke. ●

OHARRAK

1. Lan hau Parte Hartze eta Garapen Komunitarioko Masterraren Amaierako Lanaren (EHU, 2015-16) laburpena da. Lanaren tutorea Patxi Juaristi izan da. Eskerrik asko bere ohar eta patxadagatik.
2. Termino anabasa dago euskaraz mugimendu sozialaren inguruan: gizarte mugimendua, jendarte mugimendua, herri mugimendua... Nik mugimendu sozialaren alde egin dut hautua. Izan ere, inguruko erdaretan termino honen antzeko berbak erabiltzen dira batez ere (espainieraz, movimiento social, frantsesez mouvement social, katalanez moviment social, galizieraz movimiento social eta ingelesez social movement).
3. Euskara elkarte izenaren aldeko hautua egin dut. Alde batetik, euskara elkarten sorreratik (90eko hamarkadatik) gehien erabili den izena delako. Hala ere, 2011n egin zen kongresutik Topagunea ahaleginean ari da euskaltzaleen topaguneak izena erabiltzen: adibidez, Topagunea (2016). Azkenik, Euskarabilak bere izenean Basauriko euskaldunon elkarte izena erabiltzen du.
4. Militantzia, aktibismo eta boluntariotza kontzeptuen harira, Topaguneak orain dela gutxi hasierako hausnarketa egin du. Hala ere, ez da argitu zein den kontzepturik eraginkorrena euskara elkarteetan pertsonen egiten duten ordu eta lan dedikazio boluntarioa definitzeko. Beraz, horregatik, hiru kontzeptuak batera erabiltzearen aldeko hautua egin dut (Topagunea, 2016: 12).

Edozein mugimendu sozialak bere arrastoa utzi behar du jendartean. Eta, ahal duen neurrian eta indarrak indar, jendarte hori eraldatzen saiatu. Hortaz, nire ustez, Euskarabilak Basaurin bizi-eredu aurreratzailerak martxan zelan jarri hausnartu beharko luke. Euskarabila elkartearen balio nagusiak (batez ere, euskaraz bizitzaren aldeko hautua, egunero gorpuztu eta haragitzeko dinamikak asmatu beharko lituzke elkarteak.

5. Euskara elkartein inguruko eztanda ulertzeko gako politikak ematen ditu Kike Amonarrirek Jazten aldizkariaren 8. alean plazaratutako artikuluan: Amonarri (1993).
6. Lehen elkarte 1983an sortu zen Arrasaten, Arrasate Euskaldundu Dezagun (AED). Hala ere, 90eko hamarkadara arte bakardadean egin behar izan zuen bidea: Arruti (1995). 90eko hamarkadan, ostera, hainbat herri, auzo zein bailaratan sortu ziren AEDren tankerako elkarteak, Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan, horien artean gure ikerketaren objektu den Euskarabila bera ere. Hala ere, hurrengo hamarkadan eta gaur egun ere tantaka-tantaka bada ere, euskara elkarteak sortzen ari dira, baita Ipar Euskal Herrian ere.
7. Aitor eta Pedro Zuberogoitia anaiek 2014an Euskaltzaindiako Euskera aldizkarian honakoa esaten zuten: "Ika-mika guztien gainetik pentsamolde eta tipologia desberdinetako euskaldunak batzea eta euskara beste dinamika batzuen periferiatik diskurtsoaren erdigunera ekartzea izan ziren lehen euskara elkartein oinarri sendoenak. Intuiziotik hazitako bide horri ekarpen teoriko garrantzitsua egin zion Sanchez Carrionek, 1987an argitaratutako *Un futuro para nuestro pasado* liburuarekin. Eguneroko praktikek eta oinarri teorikoak bat egiten zuten une horretan tsunami txiki bat eratu zen euskal hirietan" (Zuberogoitia, A., Zuberogoitia, P. 2014: 555).
8. Community forest terminoa Mikel Zalbidek sortu du, baina Joshua Fishman soziolinguistaren ideietan oinarrituta. Komunitategintza terminoa nik emandako itzulpena da. Terminoa inguruko argibide gehiago hemen: Rodriguez (2013).
9. Literatura zientifikoan eztabaida handia dago "berri" eta "zahar" kontzeptuen artean. Egile batzuen arabera, langile mugimendua, mugimendu erlijioso zenbait eta mugimendu abertzaleak lirake mugimendu sozial "zaharrak" (nahiz eta XXI. mendean hori aktibo egon eta nahiz eta batzuek behintzat inoizko eragin handiena izan gaur egun). Mugimendu sozial "berriak", ostera, 60. hamarkadaren eztanda sozialen ondorioz sortutakoak lirake: mugimendu feministak, ekologistak, gay eta lesbianen aldekoak, bakezaleak eta abar (begiratu Irigoien, 2015: 7-8).
10. Kontseiluaren barruan (euskararen aldeko erakunde sozialen bilgune gisa definitzen du bere burua) aholkularitza enpresek, euskara hutsezko komunikabide pribatuek, elkarte profesionalek eta bestelako elkarte mota batzuek hartzen dute parte, mugimendu sozialeko erakundetzat har ditzakegun beste kolektibo eta elkarte batzuekin batera.
11. Xabier Isasi, ordea, ez dator bat Patxi Baztarrikaren iritziekin: "Euskalgintza instituzionala oximorona da, sindikalgintza gobernutarra esatearen antzeko zerbait. Termino hori Jaurlaritzaren eta haren inguruko bulegoetatik sortu da. Erakundeek euskararen alde egiten dute, eta aukera, egia ere bada, baina instituzioak ez dira euskalgintza. Euskalgintzakoak ezin izan baitaitezke *governuz barruko erakundeak*" (Isasi, 2015).
12. Parentesien artean agertzen diren zenbakiak parte hartzaileak identifikatzeko erabili dira. Zenbakiak 1etik 33ra artekoak dira eta bakoitzak pertsona bati egiten dio erreferentzia.
13. Soziolinguistika domestikoa honela definitu daiteke: "Egunerokoan hizkuntza dela eta ez dela sortzen zaizkigun mila arazoren aurrean konponbideak bilatzen dituen zientzia-adarra dugu (edo ez da zientzia-adarra, baina berdin zaigu). Begirada mikroa darabil, gertutik ikusteko betaurrekoak. Eta praktikoa da, erabat praktikoa. Eta, beraz, egoera bakoitzean egon daitezkeen faktoretxo guztiak aintzat hartu behar ditugula oroitarazten digu" (Rodriguez, 2015).

BIBLIOGRAFIA

- AMONARRIZ, K. (1993), Euskararen aldeko mugimendu sozialak gaur egun, *Jazten aldizkaria 8*, Arrasate: AED.
- ARNEDO, M. (2014), *Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak haur, guraso eta hezitzaileen euskararen erabileran duen eragina aztertuz*, Hiznet graduondokoa, argitaratu gabeko txostena.
- ARRUTI, I. (1995), Euskara elkarteak: jatorria eta norabidea, *Bat aldizkaria 16*, Andoain: EKB.

- BAZTARRIKA, P. (2009), *Babeli gorazarre*, Alberdania, Donostia.
- CASQUETTE, J. (1998), *Política, cultura y movimientos sociales*, Bakeaz, Bilbo
- CASQUETTE, J. (2001), *Acción colectiva y sociedad de movimientos. El movimiento antimilitarista contemporáneo en el País Vasco-Navarro*, Soziologiako euskal koadernoak, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz
- COOPER, R.L. (1997), *La planificación lingüística y el cambio social*, Cambridge university press, Cambridge.
- DIANI, M. (1992), The concept of social movement, *The sociological review* 40-1, Londres
- EUSKARABILA (2012), *Euskarabila, euskaldunon hizkuntza komunitateak Basaurin behar duen hauspoa, argitaratu gabeko txostena.*
- FISHMAN, J. (1974), *Advances in language planning*, Mouton
- HAUGEN, E. (1966), *Language Conflict and Language Planning: The Case of Modern Norwegian*, Harvard University Press, Harvard.
- IBAÑEZ, A. (2006), *Karrikiri: Iruñeko euskaldunon elkarte*, Hiznet graduondoa, argitaratu gabeko txostena.
- IBARRA, P., DE LA PEÑA, A. (2004), *De la confrontación militante a la cooperación pragmática*, Los libros de la catarata: Madril.
- IÑIGO, J.J. (1992), Helduen euskalduntze alfabetatzearen herri mugimendua, *Bat aldizkaria* 7-8, EKB, Donostia.
- IRIGOIEN, M. (2015), *Gizarte mugimenduak, mapa berri baterako lehen orriak*, Gradu Amaierako Lana, EHU-UPV, Leioa.
- ISASI, X. (2015), Zorua versus unibertsoa, <http://www.unibertsitatea.net/blogak/isasi/2015/12/03/zorua-versus-unibertsoa/>
- JOXEMI ZUMALABE FUNDAZIOA (2016), Parte hartzea XXI. mendean. Aktibismoa: militantzia vs. Boluntariotzaren alternatiba gisa?, argitaratu gabeko ponentzia, Topagunea. http://topagunea.eus/topaldia/wp-content/uploads/sites/6/2016/01/topaldia_3_joxemi_zumalabe.pdf
- JUARISTI, P. (2015), Egunkaria: gizarte zibil euskaltzalearen arrakasta, *Jakin aldizkaria* 210, 2015, Donostia.
- LARRAÑAGA, I. (2013), *Elgoibarko Izarra: Atzera begira aurrera egiteko 1990-2010*, Mondragon Unibertsitatea, argitaratu gabeko txostena.
- MARCHIONI, M. (2009), *Dossier de formación: intervención comunitaria*, IMM, Madril.
- MARÍ, I. (1993), Los movimientos sociales en favor del catalán in *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak*, Joseba Intxausti zuz., EHU-UPV, Bilbo.
- MINER, I. (2002), *Lau Haizetara elkarte, etorkizunerako urratsak*, Hiznet graduondokoa, argitaratu gabeko txostena.
- RASCHE, J. (1994), Sobre el concepto de movimiento social, *Zona Abierta* 69, Fundación Pablo Iglesias, Madril.

- RODRIGUEZ, T. (2013), Tximintx, 10 anos traballando en community fostering, *A letra miuda aldizkaria 4*, Coordinadora Galega de Equipos de Normalización e Dinamización Lingüística, Santiago.
- RODRIGUEZ, T. (2015), Zer da soziolinguistika domestikoa?, <http://blogak.eus/garaigoikoa/zer-da-soziolinguistika-domestikoa>
- RUIZ DE OLABUENAGA, J.I., ISPIZUA, M.A. (1989), *La descodificación de la vida cotidiana, Métodos de investigación cualitativa*, Bilbo: Deustuko unibertsitatea.
- SANCHEZ CARRION, J.M. "Txepetx" (1991), *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*, Adorez eta Atseginez mintegia: Donostia.
- TOPAGUNEA (2011), *Oinarririk, Abadiño: Euskaltzaleen Topagunea.*
- TOPAGUNEA (2016), *Harrera gida: Euskaltzaleen Topaguneak, zertarako eta nola*, Durango: Euskaltzaleen Topagunea.
- URLA, J. (2012), *Reclaiming basque*, University of Nevada press, Reno.
- ZALBIDE, Mikel (2003), Ahuldutako Hizkuntza Indarberritzea: teoriak zer dio? Erabili.com. Azpeitiko Euskara Patronatua. Hemen: http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1056974834
- ZALBIDE, Mikel (2007), Iparraldeko euskalgintza, XIX. mendearen bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia, *Euskaltzaindia aldizkaria 52. zenbakia*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- ZUBEROGOITIA, A. eta P. (2014), Euskara hirian: indar gidari bila, *Euskera aldizkaria 59,2*, Bilbo: Euskaltzaindia.